

DECRETO N° 2984
(P001608)

AKORDIOA:

Udalatzak, bi mila eta zortziko azaroaren hogeita seian, eginiko bilkuran, besteren artean, honako akordioa hartu zuen, A.F.A.ren 206 artikuluaren salbuespenarekin:

“Gaitzat harturik 2008PGEN0001 expedientea, 7.2.04 ARBES esparruan Plan Orokorra aldatzeari buruzkoa

Honako ekintza hauek ikusirik:

-Alkatetzak 2008ko maiatzaren 16an emaniko Ebazpenaren bidez, honako erabaki hau hartu zen:

“1.- 7.2.04 ARBES esparruan Plan Orokorraren 22. Aldaketa egitea.

2.- Hiritarrek parte hartzeko prozesua definitzea, honekin batera doan dokumentuaren arabera.

3.- Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren organoei Lurzoruan buruzko 2/2006 Legearen 90. artikuluak aipagai duen txostena eskatzea. Gehienez ere bi hilabeteko epean emango dute txosten hori ”.

-I. Eranskinean jaso da hiritarren eta instituzioen parte hartzearen emaitza.-

- 7.2.04 ARBES hirigintza jarduerarako esparrurako indarrean dagoen Plan Orokorrak jasotako hirigintza zehaztapenak ukitzen ditu Aldaketa proposamenak.

Indarrean dagoen Plan Orokorrak Ekipamendu eta Espazio Libreetarako jasotako mugen barnean dagoen lur guztia Udalarena da.

Esparruan dauden gainerako lurrek, errepideen jabari publikoarekin (Foru Aldundia) eta jabari publiko hidraulikoarekin (Administrazio Orokorra) loturik daudenek, ez dituzte erabilera eta jabari ezaugarriak aldatuko.

-Plan Orokorrak hiri zoru gisa sailkatu du 7.2.06 ARBES esparruan dagoen lurzorua, eta esparruen Fitxetan kalifikazio globala ezartzen du EKIPAMENDU ETA ZERBITZU (E) Eremu gisa. Baina 2. Planoan *Hirigunearen Kalifikazio eta Egitura Orokorra*, KIROL EKIPAMENDU gisa ageri da.

-Plan Orokorraren 22. Aldaketa egingo da Lagunza Ekipamendurako Sistema Orokorra bideratu ahal izateko, baina beti ere lurralte esparruko kirol ekipamenduekin bateragarria, Artiako kanalaren ondoko bizileku eremuei zerbitzua emateko, eremu horietan etxebizitza kopurua nabarmen handitu baita.

Gainera, Artiako errekkarekin nahiz Autopistarekin loturiko Sistema Orokoren sarea osatuko da.

Honako argudio hauek gogoan izanik:

-Aldaketa Proiektuak zera planteatzen du, gaur egun aurreikusitako KIROL EKIPAMENDU (ED) kalifikazio globalaren ordez, honako kalifikazio global hauek jasotzea:

Laguntza Ekipamendu Komunitarioen Sistema Orokorra (EA)
Ibai Ibilguaren Sistema Orokorra (C)
Bide Sistema Orokorra (V)
Espazio Libreen Sistema Orokorra (L)

Hiri lurzoruaren sailkapena mantenduko da, baina urbanizazioak sendotu gabeko hiri lurzorua izango da.

Kudeaketa baldintzei dagokienean, egungo Esparruaren Fitxatik kendu egingo da “desjabetzearen” aipamena, Ekipamendu eta Espazio Libreen Sistema Orokorrerako lurrik jadanik Udalarenak direlako, eta horrenbestez, Sistema Orokor sendotu eta lortua da (SIGO).

Ibai Ibilguen Sistema Orokorrak (C) eta Bide Sistema Orokorrak (V), lehen esan den bezala, mantendu egingo dituzte beren egungo erabilera eta jabari baldintzak.

-Antolamendu xehearen kalifikazioa jasotzen du Aldaketak, eta horrenbestez, ez da beharrezkoa garapenerako plangintza egitea.

LAGUNTZA EKIPAMENDUAREN Sistema Orokorra kalifikazio globala duen eremuari dagokionean, honako kalifikazio xeheko eremu hauak jaso dira:

Kirol Ekipamendua (ED) kirol jarduerak eta egoteko eta aisiarako eremuak sortzeko.
Laguntza Ekipamendua (EA) hirugarren adinekoentzako Egoitza eta Eguneko Zentroa egiteko eta gainerakoa laguntza programarako.
Tokiko Hiri Bideak (VL) beste bi bide berri egin ahal izateko.

-Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen ondorioetarako, Sistema Orokoren Sareko Hornidura Publikoak Gauzatzeko Jarduera gisa hartuko da jarduera hau.

-Plan Orokorraren Aldaketa honetan ez da irabazizko eraikigarritasuna handituko, eta ezta etxebizitza erabilerarako eraikigarritasuna ere, eta horrenbestez, ez dira aplikatu behar ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 105. artikuluaren zehaztutako mugak,

-Bestalde, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 105.6 artikuluak nahiz 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrien inguruko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 35.2 artikuluak zehaztutakoa:

Hirigintza antolamendurako planen aldaketa puntualek mantendu egingo dute lursail eta orubeen hornidura publikorako erabilera aurreko erabilera huraxe izan bada edozein

motako lurzorutan. Halaz ere, gaia dela eta, eskumena duen administrazioak beharreko erabilera ezartzeko derrigorrezko txosten egin ondoren, eta txosten horretan xede horretarako lurzorurik ez dela behar justifikatzen bada, beste hornidura publiko batzuetarako erabili ahal izango dira aipaturiko lursail eta orube horiek, bertan horniduretarako erabilera sarturik.

Kasu honetan, Irungo Udala da eskumena duen administrazioa, eta Proiektuan nahiz espedientean jaso da Aldaketaren justifikazioa, honako termino hauetan:

Esparruaren antolamenduari buruz lehen eginiko proposamenetan kontuan hartu zen futbol zelai bat egiteko edo Plaiaandiko instalazioak egokitzeko aukera, beste helburu batzuen artean, Plan Orokorrak adierazten duen bezala.-“*Plaiaundiko eremuan dauden kirol instalazioetako batzuk kokatzeko aukera*”.

Halaz ere, proposamen horiek lurraren neurria dute aurka, oso leku justua baita planteaturiko instalazio horiek egokitzeko, eta gainera, ez zaie konponbiderik ematen hurbileko bizileku eremuen kirol beharrei, horixe izanik Plan Orokorraren beste helburuetako bat, hauxe da: “*Artiako kanaletik hurbil dauden bizileku eremuetako kirol ekipamendua hobetza, kontuan izanik 7.2.01: Palmera-Montero eta 7.2.02: Altzukaitz hirigintza jardueretarako esparruetan etxebitzitza kopurua nabarmen handitzea proposatu dela*”.

Ildo honetatik, Irungo Kirol Ekipamenduen Planaren (PEDI) Aurrerakinak, Kirolaren Udal Patronatuak 2003. urtean egina hura, zera planteatzen zuen:

“*Proiektua sortu da Arbes auzoan eta inguruetai kirol esparruak egiteko beharra dagoelako, esparru horietan jarduera fisikoak egin ahal izateko, batik bat parte hartze aldetik. Udalerriko eremu honetan hirigintza garapen handia bideratu da, eta horrenbestez, inguruetai nabarmen handitu da biztanle kopurua.*

Ekipamendu Planean deskribaturiko tipologia desberdinaren barnean, Eremuko (auzoko) lurralte esparruko ekipamendua izango litzateke, batik bat jendeak parte hartzeko helburuarekin: jolas, aisia, osasuna...

Instalazioak ondo komunikaturik daude errepidez, eta Osinbiribileko biribilgunearen bidez irits daiteke haietara, Aiako Harrirako norabidean, edo Arbesko Errota aldetik. Halaz ere, sarbide onak dituen eremua da Ibarlatik, Palmerako bizileku eremutik eta auzoko eta inguruetaiko beste puntu batzuetatik. Instalaziora sartzeko argiteria osatu beharko litzateke”.

Gorabehera horiek kontuan harturik, indarrean dagoen Plan Orokorraren egungo Berrikuspen prozesuan **ZUBIETAKO EREMUA** proposatzen da **Kirol Ekipamendurako Sistema Orokorra** kokatzeko lekurik egokien gisa, atletismo pista, Errugbi zelaia eta erabilera anitzeko beste pista batzuk kokatzeko. Hondarribian 77.000 m² lur hartuko lituzkeen ekipamendu hori, baterako kudeaketa jardueraren fruitu izanik, Plaiaundiko

egungo instalazioak lekualdatzeko aukera gisa planteatzen da neurri batean eta horiek zabaltzeko aukera gisa bestean.

Oso ongi kokaturiko lekua da, Iparraldeko eta Erdialde Mendebaldeko eremu osoari dagokionean, eta sarbideak izango ditu etorkizuneko Hondarribiko Parke Teknologikora sartzeko aurreikusitako bidetik.

Bestalde, hiri osoan dauden laguntza beharrak kontuan harturik, laguntza ekipamendua sortzeko beharra nabari da, hirugarren adinekoen beharrei erantzun ahal izateko.

Ildo horretatik, Irungo Udalak, ARBESko eremuan ekipamendu bat bideratzeko proposamena egin dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, bertan honako baliabide hauek biltzeko:

Laguntza baliabideak 65 urtetik gorako mendeko pertsonentzako.

Laguntza baliabideak 65 urtetik beherako mendeko pertsonentzako.

Adineko pertsonentzako babespeko apartamentuak.

Eguneko zentroa/gizarte zentroa ezintasunak dituzten pertsonentzako.

Autonomia sustatzeko zentroa adineko pertsona autonomo ahulentzako.

Halatan, laguntza ekipamendu berria eraikitzea planteatzen da, ekipamendu moderno eta funtzionala, ingurua eta zerbitzuak partekatuko dituena, eta beste baliabide batzuekin sinergiak sortuko dituena, eraginkorragoa izan dadin, eta defizitarioa izango ez den kudeaketa eredu berri batekin.

65 urtetik gorako mendeko pertsonentzako egoitzak 130 plaza inguruko lekua izan beharko luke. Egoitza osatuko duten apartamentuei dagokienean, hurbiltasunagatik zerbitzuen hornidurez osaturiko babespeko apartamentuez hitz egiteko aukera izango genuke, egoitzako zerbitzuak aprobetxa daitezkeelako. Lekaenean zehaztutakoaren antzeko programa planteatzen da, ez dira 50 apartamentu baino gehiago izango (bikoitzak edo banakakoak), era honetako ekipamenduak arautzen dituen araudiaren arabera (2006ko urriaren 27ko EHAAn argitaratutako 195/2006 Dekretua).

Ekipamendu hau 65 urtetik beherako pertsonentzako egoitza moduluren batekin osa liteke, batik bat kontuan hartzen bada Irunen ez dagoela era horretako baliabiderik.

Azkenik, ezintasunak dituzten pertsonentzako Eguneko Zentroa eta Gizarte Zentroa planteatzen dira; horrek, sinergietan etekinak eta kudeaketan eraginkortasuna ekartzeaz gainera, erraztu egingo luke eskariaren erantzuna, Gizarte Ongizate Arloko Aholku Batzordearen Mendekotasun Batzordeak egina hura, ezintasunak dituzten pertsonentzako aisialdi programak biltzeko espazioa, hain zuzen ere, ohiko zaintzaileei arnasaldi bat ematen zaien bitartean.

Horrenbestez, hiri osoan dauden laguntza beharrak kontuan harturik, egiaztago delako, 7.2.04: ARBES esparru horretan bideratzea Laguntza Ekipamendua eta Kirol Ekipamenduen ezarprena. Horiek, bideragarriak eta elkarrekiko osagarriak

izateaz gainera, zerbitzuak emango dizkiete Artiako kanalaren ondoko bizitegi eremuei, eremu horietan etxebizitza kopurua nabarmen ugaritu delako.

-Hala kalifikazio globala nola sistema orokoren sarearen zehaztapena, hirigintza antolamendu egituratzailearen zehaztapenak dira (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53. artikulua), eta horrenbestez, horiek aldatu eta zehazteko plangintza orokorra aldatu behar da ezinbestean.

- Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren 5.1 artikuluak xedaturikoaren arabera, Plan Orokorraren aldaketa puntualeen espedienteek Plangintzako Aholku Batzordearen txostena beharko dute derrigorrez.

2008ko maiatzaren 22an, 7.2.04 ARBES esparruko Plan Orokorraren Aldaketa egin dela jakinarazi zitzaison Batzordeari.

2008ko azaroaren 10ean, Batzarrari aurkeztu zitzaison Aldaketa proposamena, eta bertan bildutako gehienek, Plan Orokorraren zehaztapen horien aldaketak eskatzen dituen antolamendu helburu eta irizpideen aldeko iritzia azaldu zuten.

-2/2006 Legearen 104. artikuluak arautzen du hirigintza planetan zehaztutako antolamendu aldaketarako prozedura, eta bertan adierazten da **plan mota berdinaren bidez egin behar dela zehaztapenen aldaketa**, zehaztapen horiek onartzeko jarraituriko prozedura berdinarekin, Plan Orokorraren aldaketak arau horretatik kanpo geraturik, kasu horietan aukerakoa izango baita aurrerakinaren tramatuzioa.

Aldaketa honetan ez da Aurrerakin Dokumenturik egin.

2/2006 Legearen 90. eta 91. artikuluek arautzen dute plan orokorraren formulazioa eta tramatuzioa, eta prozedura horren pean dago Aldaketa hau.

-1/2006 Legearen 85.3 artikuluak xedaturikoaren arabera, Lege hori garatzeko Premiazko Neurrien ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 34. artikuluak garatua agindu hori, Hirigintza planen hasierako onarpenerako erabakiak, gehienez ere bi urteko epean erabakia plan orokorreai dagokienean, era guztietako onarpenak, baimenak eta lizenziak bertan behera uztea zehaztuko du aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza erregimena aldatzea eragiten duten esparruetan.

-Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretu horren 32. artikuluak zehazten du plangintzaren jende aurreko informazio-tramiterako aurkeztu beharreko gutxieneko dokumentazioa, Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuaren 11. artikuluak xedaturikoa jasorik, ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu Legegileak onartua hura.

-Herri Lan, Hiri Garapen, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak espedientea aztertu zuen 2008ko azaroaren 17ko bileran.

-Eta espedientean jasotako dokumentazioa ikusirik

Udalaren Osoko Bilkurak zera erabaki du:

1.-Hasieran onartzea 7.2.04 ARBES esparruan Plan Orokorra Aldatzeko Proiektaua (22. Aldaketa).

2.- Proiektu hau eta 7.2.04 ARBES esparruari dagokion espedientea jende aurreko informazio-tramitean jartzea, lurralte historikoko aldizkari ofizialean eta lurralte historikoan hedatuen edo zabalduen dagoen egunkarian argitaratutako iragarkien bidez, hilabete batez, azken argitalpenetik aurrera kontatuta.

3.-Urte batez bertan behera uztea edozein onarpen, baimen eta lizentzia 7.2.04 ARBES esparruan.

Bertan behera uzteko akordio hori ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 85. artikuluak zehaztutako moduan argitaratuko da.

4.-Lizentziak bertan behera uzteko erabakia betikoa da administrazio-bidean eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez daiteke Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren aurrean, bi hilabeteko epean, erabaki honen azken argitalpenaren hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Halaz ere, Udalbatzaren Osoko Bilkuraren aurrean berraztertzeko errekursoa aurkeztu ahal izango da hilabete bateko epean, erabaki honen azken argitalpenaren hurrengo egunetik aurrera kontatuta, egokitzat hartzen den beste edozeinez gainera”.

ERANSKINA

HIRITARREN ETA INSTITUZIOEN PARTE HARTZE PROZESUAREN EMAITZA.

-Honako idatzi hauek jaso dira:

-Kultur Ondarearen Zuzendaritza Orokorra (Foru Aldundia):

Adierazi dute antolamenduaren esparruan ez dagoela errespetatu beharreko kultur ondareko elementurik.

- Larrialdien Arretarako Zuzendaritza. Barne Saila (Eusko Jaurlaritza)

Honako hau adierazi du:

-Uholdeak izateko arriskuak.

Plan Orokorraren Berrikuspenak errespetatu egingo ditu EAEko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Zatikako Lurralte Planak zehaztutako erretiro hidraulikoak eta Iparraldeko III. Plan Hidrologikoak xedaturikoa.

1996ko otsaileko Arriskuaren Mapa Gidatzailearen arabera, Irungo udalerrian egunean 275 eta 375 mm artean daude prezipitazio isomaximoak, 500 urteko itzulera denboraldirako, eta horrek esan nahi du, drainatze obra guztiak diseinurako kontuan hartu behar direla itzulera emariekin loturiko prezipitazio horiek.

-Arrisku sismikoak.

Udalerrrian ez da Larrialdi Plan Sismikorik egin behar. Halaz ere, eraikuntza berrietan kontuan izango da Eraikuntza Arau sismoerresistentea (NCSR_-02), irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartua.

-Basoak su hartzeko arriskua.

Hainbat eremutan banatu da, arriskurik gabekoa (mahastia), arrisku txikikoa (landaredia errudeal nitrofiloa, soroak eta kultibo atlantikoa), arrisku ertainekoa (harizti eremu hondatuak) eta arrisku handikoa (harizti sendotuak eta baso landatuak)

-Arrisku teknologikoak.

Merkantzia arriskutsuen garraioa.

Honi dagokionean, Irungo udal Larrialdi Plana bidaliko da.

-Ingurumen Sailordetza. Bioaniztasun zuzendaritza eta Ingurumen Parte hartzea.

Proposatzen da:

- *Landare multzoen gainean sor daitezkeen eraginei begira, 3.2 atalean deskribaturiko neurriak hartza gomendatzen da, horiek lagunduko dutelako lurralte iragazkortasunean eta paisaiari dagokionean garapenak inguruan integratzen.*
- *Faunari dagokionean, suge berdehorriarentzako, kontsideratzen da, esparruaren hirigintza diseinuan lendaresi eta basoxka autoktonoak sartzeak txikitu ditzakeela espezie horren gainean izan daitezkeen eraginak. Arrain hiruarantza, zapo korrikalari eta bisoi europarrarentzako, beharrezko da batik bat Artia errekan ibilguaren egoera eta harekin loturiko landaredia multzoak zaintza.*
- *Bisoi europarrari dagokionean, Kudeaketa Plana indarrean dagoen Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta haren xedapenak ezinbestean betar dira.*
- *Lotura ekologikoari dagokionean, nabarmenzen da landaredia zerrenda trinko eta ongi garatua kontserbatu behar dela Artia errekan loturik, eta behar horren izaera kritikoa nabarmenzen da esparruaren hego-ekialdeko muturrean, autopistako igarobide goratutik gertu.*

Horri dagokionean, zera esan behar da:

Larrialdi Zuzendaritzaren Txostenak gogorarazten du honako hauek aplikatu behar direla: EAEko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Zatikako Lurralde Plana (ZLP), Euskal Herriko Uholdeen Prebentziorako Plan Integrala (1992) eta EAEko hiriguneetan Uholdeen arriskuaren Azterketa 2001-2005, eta baita Lurzoruaren Erabilera Irizpideak ere, Uholdeak izateko arrisku Mailaren arabera.

Ildo horretatik, gogora ekarri behar da Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Zatikako Lurralde Planaren aldaketa tramitean dagoela eta ZLP horren Eranskinean jaso diren uholdeak izateko arrisku mapak bat datozena 2001-2005 denboraldian hiriguneetarako eginiko Azterketan zehaztutakoarekin. Azterketa horretan, “Artia” errekan mugan dagoen “ARBES” Eremua “10 eta 100 urte arteko itzulera denboraldiko uraldiak dituen urak hartutako Eremuen” esparruan egongo litzateke”.

Aldiz, azterketa horrek ez ditu jasotzen egin diren hiriguneen gomendioak, eta horrenbestez, ez ditu jasotzen errekkak garbitu eta egokitzeko jarduerak beren azken zatieta urak Bidasoara isuri aurretik, eremu horretan ubideen gaitasuna handitu baita kanalizazio obra berriein, eta Artiaren kasuan, birnaturalizazio jarduerak egin dira. Horrenbestez, eraikitako auzo berrien egungo egoera, erreketatik etorritako urek hartzeko arriskuari dagokionean, ez da oinarri topografiko zaharraren arabera kontsideratu behar, uraldiak husteko gaitasuna handitu egin baita.

Horregatik, Udala eremuaren azterketa hidrauliko espezifikoa egiten ari da, Uren Agentziak berak era honetako azterketetarako dituen egungo arauen arabera, horretarako definizio topografikoa aldatuz zeharkako profilen mailan jadanik eginiko obren arabera, eta hori guztia, uholde orbanak edo lerroak xeheago zehaztu ahal izateko.

Uholde arriskuen orbana berriz definitzeko, Plan Orokorraren Aldaketa Puntual honek planteatzen du lursail eraikigarria 500 urteko itzulera denboraldirako uholdeak izateko arriskutik kanpora egongo den kotan definitzea, azterketa hidraulikoan eta ingurumen azterketan ingurumenari begira onar daitezkeen neurri zuzentzaileen xehetasuna jasorik, uholdeak izateko arriskua eta aurrez dagoen arriskua areagotu gabe.

Kasu honetan, eta arestian aipaturiko udal azterketa hidrauliko hori bukatzen ez den bitartean, proposamen honek (+) 7,82 kota jasotzen du, Eusko Jaurlaritzaren uholde arriskuaren azterketan zehatzua, 500 urteko itzulera denboraldiko uholdeak baztertzeko.

Esparruan badira kota horretatik behera dauden eremuak, baina eremu horietan azaleran soilik aurreikusten dira kirol instalazioak, inguruko uholde arriskuan eragin negatiborik izango ez dutenak eta pertsonen segurtasunerako arriskurik ez dakartenak, hain zuzen ere.

Kirol erabilerarako uholde arriskua duten eremu horiek, berez eraikuntzarik ez dutenak, “erretentzio depositu” gisa ere jardun dezakete uraldiak gertatzean.

Bestalde, Artiako kanala espazio libreen sistema gisa antolatuko da ertz hori errespetatu eta babestu ahal izateko.

Hiritarren parte hartea.-

Denboraldi honetan ez da iradokizunik aurkeztu.

DEKRETUA: Aurreko erabakian agindutako guztia beteko zaie interesatuei.

Hiri honetako Udal Txit Goreneko Alkate-Lehendakari jaunak agintzen eta sinatzen du, Irunen bi mila eta zortziko azaroaren 27an

ALKATEA/EL ALCALDE,

DILIJENTZIA: Data honetan betetzen da agindutakoa, ziurtatzen dut.

DECRETO N° 2984
(P001608)

ACUERDO:

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día veintiséis de noviembre de dos mil ocho, adoptó, con la salvedad del Art. 206 del R.O.F., entre otros, el siguiente acuerdo:

“En relación con el expediente nº 2008PGEN0001 relativo a la Modificación del Plan General en el ámbito 7.2.04 ARBES”

Resultando los siguientes hechos:

-Mediante Resolución de la Alcaldía de fecha 16 de mayo de 2008, se acordó:

“1º.-Formular la Modificación nº 22 del Plan General en el ámbito 7.2.04 ARBES.

2º.-Definir el proceso de participación ciudadana según documento que adjunto se acompaña.

3º.-Solicitar de los órganos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral de Gipuzkoa la información a que se refiere el artículo 90 de la Ley del Suelo 2/2006, que se suministrará en un plazo no superior a dos meses”.

-El resultado de la participación ciudadana e institucional se refleja en Anexo I-

-La propuesta de Modificación afecta a las determinaciones urbanísticas definidas por el Plan General vigente para el ámbito de intervención urbanística 7.2.04 ARBES.

La totalidad del terreno incluido en la delimitación destinado por el vigente Plan General a Equipamiento y Espacios Libres pertenecen al Ayuntamiento.

El resto de los terrenos incluidos en el ámbito, adscritos al dominio público de carreteras (Diputación foral) y dominio público hidráulico (Administración General) no se alteran en sus características de uso y dominio.

-El Plan General clasifica el suelo incluido en el ámbito 7.2.06 ARBES como suelo urbano, estableciendo la calificación global en las Fichas de los ámbitos, como Zona de EQUIPAMIENTOS Y SERVICIOS (E). Si bien en el Plano 2 *Calificación y Estructura General del núcleo urbano*, figura como EQUIPAMIENTO DEPORTIVO.

-Se formula la Modificación nº 22 del Plan General con el objetivo de posibilitar la implantación de un Sistema General de Equipamiento Asistencial , si bien compatible con la implantación de equipamientos deportivos de ámbito territorial zonal que prestará servicios a zonas residenciales próximas al canal Artia en las que se ha producido un incremento importante de viviendas.

Se completa además la red de Sistemas Generales asociados tanto a la existencia de la regata de Artía como a la Autopista.

Considerando los siguientes argumentos:

-El Proyecto de Modificación plantea que en lugar de la calificación global actualmente prevista de EQUIPAMIENTO DEPORTIVO (ED) se contemplen las siguientes calificaciones globales:

Sistema General de Equipamiento Comunitario Asistencial (EA)
Sistema General de Cauce Fluvial (C)
Sistema General de Viario (V)
Sistema General de Espacios Libres (L)

Se mantiene la clasificación de suelo urbano, si bien es suelo urbano no consolidado por la urbanización.

En cuanto a las condiciones de gestión, se elimina de la actual Ficha del Ambito la mención a la “expropiación”, toda vez que los terrenos destinados a Equipamiento y Sistema General de Espacios Libres pertenecen ya al Ayuntamiento, tratándose por tanto de un Sistema General consolidado y obtenido (SIGO).

El Sistema General de Cauces (C) y el Sistema General Viario (V), como se ha indicado, mantienen sus actuales condiciones de uso y dominio.

-La Modificación contiene la calificación de ordenación pormenorizada por lo que no resulta necesario formular un planeamiento de desarrollo.

Respecto de la zona calificada globalmente como Sistema General de EQUIPAMIENTO ASISTENCIAL se recogen las siguientes zonas de calificación pormenorizada:

Equipamiento Deportivo (ED) destinado a albergar actividades deportivas y zonas de estancia y ocio.

Equipamiento Asistencial (EA) destinado a Residencia de la tercera edad, Centro de Día y el resto de programa asistencial.

Viario Urbano Local (VL) destinado a posibilitar la disposición de dos nuevos viales.

-A los efectos de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo la presente actuación se considera como una Actuación de Ejecución de Dotaciones Públicas de la Red de Sistemas Generales.

-En la presente Modificación del Plan General no se va a producir un aumento de la edificabilidad lucrativa como tampoco de la edificabilidad en particular para el uso de vivienda, por lo que no son de aplicación las limitaciones establecidas en el artículo 105 de la Ley 2/2006, de 30 de junio.

-Por otra parte, tanto el artículo 105.6 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, como el artículo 35.2 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, señalan que :

Las modificaciones puntuales de los planes de ordenación urbanística mantendrán el uso dotacional público de las parcelas y solares cuyo destino precedente haya sido este en cualquier clase de suelo. No obstante previo informe preceptivo de la administración competente para la implantación del uso de que se trate por razón de la materia en el que se justifique la innecesidad del suelo a tal fin, las citadas parcelas y solares serán destinadas preferentemente a otros usos dotacionales públicos, incluyendo en el mismo el uso para alojamientos dotacionales.

En este caso la administración competente es el Ayuntamiento de Irun, quedando recogido tanto en el Proyecto como en el expediente la justificación de la Modificación, en los siguientes términos:

En anteriores propuestas realizadas sobre la ordenación del ámbito se había considerado la posibilidad de la ubicación de un campo de fútbol o el traslado de las instalaciones de Plaiaundi, tal y como, entre otros objetivos, señala el Plan General.-“*Possible ubicación de parte de las instalaciones deportivas existentes en el área de Plaiaundi*”.

Sin embargo, estas propuestas se enfrentaban con las dimensiones del territorio que resultaban muy justas para albergar las instalaciones planteadas, además de no resolver las necesidades deportivas de las zonas residenciales próximas, que constituye otro de los objetivos del Plan General, que es: “*Mejorar el equipamiento deportivo de las zonas residenciales próximas al canal de Artia, teniendo en cuenta el incremento de viviendas propuesto en los ámbitos de intervención urbanística 7.2.01: Palmera-Montero y 7.2.02: Altzukaitz*”.

En este sentido, el Avance del Plan de Equipamientos Deportivos de Irun (PEDI), elaborado por el Patronato Municipal de Deportes en el año 2003 planteaba:

“*El Proyecto nace, de la necesidad de dotar al barrio de Arbes y alrededores de espacios deportivos donde desarrollar actividades físicas, fundamentalmente en su vertiente de participación. Se trata de una zona del territorio municipal donde se ha producido un importante desarrollo urbanístico y, por lo tanto, con un incremento sustancial de vecinos residentes en el entorno.*

Dentro de las distintas tipologías descritas en el Plan de Equipamientos, se trataría de un equipamiento de ámbito territorial Zonal (de barrio) orientado principalmente al ámbito de objetivo de práctica de participación: recreación, ocio, salud...

Las instalaciones están bien comunicadas por carretera, pudiéndose acceder a las mismas a través de la rotonda de Osinbiribil, dirección a Peñas de Aia o a través de la zona de Molino de Arbes. No obstante, se trata de una zona con buenos accesos desde Ibarla, la zona residencial de Palmera y otros puntos del barrio y sus alrededores. Debiera contemplarse la iluminación de los accesos a la instalación”.

Atendiendo a estas circunstancias, en el actual proceso de Revisión del Plan General vigente se propone **el área de ZUBIETA** como lugar más adecuado para la ubicación de **Sistema General de Equipamiento Deportivo** formado por la pista de atletismo, el

campo de Rugby y otras pistas polivalentes. Este equipamiento, que ocuparía 77.000 m² de terrenos en Hondarribia y que es fruto de una actuación de gestión conjunta, se plantea en parte como alternativa al traslado de las actuales instalaciones de Plaiaundi y en parte como ampliación de las mismas.

Se trata de una localización muy bien situada respecto a toda la zona Norte y Centro Oeste, que tendrá accesos desde el viario previsto de entrada al futuro Parque Tecnológico de Hondarribia.

Por otra parte, atendiendo a las necesidades asistenciales que se producen en el conjunto de la ciudad, se deduce la necesidad de crear un complejo asistencial, que atienda a las necesidades de la tercera edad.

En este sentido, el Ayuntamiento de Irun ha trasladado a la Diputación Foral de Gipuzkoa una propuesta para el desarrollo de un equipamiento en el ámbito de ARBES que aglutine los siguientes recursos:

Recursos residenciales para personas dependientes mayores de 65 años.

Recursos residenciales para personas dependientes menores de 65 años.

Apartamentos tutelados para personas mayores.

Centro de día /centro social para personas con discapacidad

Un centro de promoción de la autonomía para personas mayores autónomas frágiles.

Se plantea así, la construcción de un nuevo equipamiento asistencial, moderno y funcional, que comparta entorno y servicios, y genere sinergias con otros recursos, de forma que sea más eficiente, y con un nuevo modelo de gestión que no sea deficitario.

La residencia para personas dependientes mayores de 65 años debería tener una capacidad de alrededor 130 plazas. Respecto a los apartamentos que complementen a la residencia, su cercanía permite hablar de apartamentos tutelados con una dotación de servicios, al poder aprovechar los servicios de la residencia. Se plantea un programa similar al establecido en Lekaenea, que no podrá ser superior a 50 apartamentos (dobles o individuales) según la normativa que regula este tipo de equipamiento (Decreto 195/2006 publicado en BOPV de 27 de octubre 2006).

Este equipamiento podría completarse con algún módulo residencial para personas menores de 65 años con algún tipo de discapacidad, sobre todo, si se considera que en Irun no hay ningún recurso de estas características.

Finalmente, la suma de un Centro de día para personas con discapacidad y un Centro social, además de los beneficios en las sinergias y eficiencia en la gestión, facilitaría la respuesta a la petición, formulada desde la Comisión de Dependencia del Consejo Asesor de Bienestar Social, de un espacio para agrupar programas de ocio para personas con discapacidad, a la vez que se proporciona un respiro a los cuidadores habituales.

Atendiendo por tanto a las necesidades asistenciales que se producen en el conjunto de la ciudad, se ha constatado la conveniencia de resolver en el mismo ámbito, 7.2.04: ARBES, el Equipamiento Asistencial y la implantación de Equipamientos Deportivos, que, además de ser compatibles e incluso complementarios entre sí, prestarán servicios a zonas residenciales próximas al canal de Artía, que están soportando un incremento importante de viviendas.

-Tanto la calificación global como la determinación de la red de sistemas generales son determinaciones de ordenación urbanística estructural (Artículo 53 de la Ley 2/2006, de 30 de junio) por lo que su cambio y determinación requieren de una modificación del planeamiento general.

- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.1 del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, los expedientes de modificaciones puntuales del Plan General están sujetos a informe preceptivo del Consejo Asesor de Planeamiento.

Con fecha 22 de mayo de 2008, se da cuenta al Consejo de la formulación de la Modificación del Plan General en el ámbito 7.2.04 ARBES.

Con fecha 10 de noviembre de 2008, se somete al Consejo la propuesta de Modificación, informándose favorablemente, por mayoría de los asistentes, los objetivos y criterios de la ordenación cuya materialización exige la modificación de las mencionadas determinaciones del Plan General.

-El artículo 104 de la Ley 2/2006, regula el procedimiento para la modificación de la ordenación establecida por los planes urbanísticos en el que se señala que **la modificación de las determinaciones deberá realizarse a través de la misma clase del plan**, observando el mismo procedimiento seguido para la aprobación de dichas determinaciones, exceptuando de esta regla las modificaciones del Plan General, en las que la tramitación del avance será optativa.

En la presente Modificación no se ha formulado Documento de Avance.

Los artículos 90 y 91 de la Ley 2/2006, regulan la formulación y tramitación del plan general a cuyo procedimiento está sometida la presente Modificación.

-De conformidad con lo dispuesto en el artículo 85.3 de la Ley 1/2006, precepto desarrollado por el artículo 34 del Decreto 105/2008, de 3 de junio , de Medidas Urgentes en desarrollo de la citada Ley, el acuerdo de aprobación inicial de los planes urbanísticos determinará la suspensión, por el plazo máximo de dos años en el caso que el acuerdo se refiere a planes generales, del otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en los ámbitos en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

-El artículo 32 del citado Decreto 105/2008, de 3 de junio, establece la documentación mínima a exponer para el trámite de información pública del planeamiento, recogiendo lo dispuesto en el artículo 11 de Texto Refundido de la Ley del Suelo, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio.

-Examinado el expediente en la sesión de la Comisión de Obras Públicas, Desarrollo Urbano, Vivienda y Medio Ambiente de fecha 17 de noviembre de 2008.

-Y a la vista de la documentación obrante en el expediente

El Pleno de la Corporación acuerda:

1º.-Aprobar inicialmente el Proyecto de Modificación del Plan General (Modificación nº 22) en el ámbito 7.2.04 ARBES.

2º.- Someter a información pública el presente Proyecto y expediente referido al ámbito 7.2.04 ARBES por medio de su publicación en el boletín oficial del territorio histórico y en el diario de mayor difusión o de mayor circulación del territorio histórico, por plazo de un mes a partir de la última publicación

3º.-Suspender por plazo de un año el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en el ámbito 7.2.04 ARBES.

El acuerdo de suspensión será publicado en la forma establecida en el artículo 85 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo.

4º.-El acuerdo de suspensión de licencias es definitivo en vía administrativa y contra el mismo se puede interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a la última publicación de este acuerdo.

No obstante, se podrá interponer recurso de reposición ante el Ayuntamiento Pleno en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la última publicación de este acuerdo, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime pertinente”.

ANEXO

RESULTADO DEL PROCESO DE PARTICIPACION CIUDADANA E INSTITUCIONAL.

-Se han remitido los siguientes escritos:

-Dirección General de Patrimonio Cultural (Diputación Foral):

Informan que no se aprecia la existencia de elementos del patrimonio cultural que deban ser respetados en el ámbito de la ordenación.

-Dirección Atención de Emergencias. Departamento Interior (Gobierno Vasco)

Informan sobre:

-Riesgos asociados a inundabilidad.

La Revisión del Plan General respetará los retiros hidráulicos del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de CAPV y lo dispuesto en el Plan Hidrológico Norte III.

Según el Mapa Directriz del Riesgo de febrero de 1996, las isomáximas de precipitación en el municipio de Irun, están comprendidas entre 275 y 375 mm/día, para un periodo de retorno de 500 años, lo que implica que para el diseño de todas las obras de drenaje se tendrán en cuenta estas precipitaciones correlacionadas a los oportunos caudales de retorno.

-Riesgos sísmicos.

El municipio está exento de realizar un Plan de Emergencia Sísmico. No obstante, se tendrán en cuenta en las nuevas edificaciones la Norma de Construcción sismorresistente:parte general y edificación (NCSR _02) aprobada por el Real Decreto 997/2002, de 27 de septiembre.

-Riesgos de incendio forestal.

Se han agrupado en zonas de riesgo nulo (viñedo), bajo (zonas de vegetación rudeal nitrófila,y a los prados y cultivos atlántico), medio (zonas degradadas de robledal) y alto(zonas de robledal consolidado y a las plantaciones forestales.)

-Riesgos tecnológicos.

Transporte mercancías peligrosas.

Al respecto se remite el Plan de emergencias Municipal de Irun.

-Viceconsejería de Medio Ambiente. Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental.

Se propone:

- *Sobre las posibles afecciones que se pudieran generar sobre formaciones vegetales, se recomienda la adopción de las medidas descritas en el apartado 3.2, que contribuirán a la permeabilidad territorial y a la integración paisajística de los desarrollos en su entorno.*
- *En relación a la fauna, para la culebra verdiamarilla, se considera que la integración en el diseño urbanístico del ámbito de setos y bosquetes autóctonos puede minimizar las posibles afecciones sobre esta especie. Para el espinoso, sapo corredor y visón europeo resulta necesario cuidar especialmente el buen estado del cauce del arroyo Artia y de las formaciones vegetales asociadas.*

- *En lo que respecta al visón europeo, cuenta con un Plan de Gestión vigente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuyas disposiciones resultan de obligado cumplimiento.*
- *En cuanto a la conectividad ecológica se subraya la necesidad de preservar una banda de vegetación densa y bien desarrollada asociada a la regata de Artia y se destaca el carácter crítico de esta necesidad en el extremo sureste del ámbito, junto al paso elevado de la autopista.*

Al respecto señalar que:

El Informe de la Dirección de Emergencias viene a recordar la aplicación del Plan Territorial Sectorial de Ordenación (PTS) de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV, del Plan Integral de Prevención de Inundaciones del País Vasco (1992) y del Estudio de Inundabilidad de los núcleos urbanos de la CAPV 2001-2005, así como de los Criterios de Usos del Suelo en función de su Grado de Inundabilidad.

En este sentido hay que recordar que la modificación del PTS de Márgenes de Ríos y Arroyos se encuentra en tramitación y que los mapas de inundabilidad que se recogen en el Anexo de este PTS corresponden con los definidos en el Estudio realizado para los núcleos urbanos durante el periodo 2001 – 2005. En este Estudio, el Área “ARBES”, que linda con la regata “Artia”, estaría ubicada en la zona de “Áreas inundadas con avenidas de periodo de retorno comprendido entre 10 y 100 años”.

Sin embargo este estudio no recoge las remodelaciones de las zonas urbanas que se han realizado ni, por tanto, las operaciones de limpieza y adecuación de las regatas en sus tramos finales antes de verter aguas al Bidasoa, donde se ha ampliado la capacidad de encauzamiento con las nuevas obras de canalización, y en el caso de Artia, de renaturalización, de forma que la situación actual de los nuevos barrios construidos en cuanto a riesgo de inundaciones por aguas procedentes de las regatas no puede considerarse sobre la base topográfica antigua ya que la capacidad de evacuación regulada de avenidas se ha incrementado.

Es por ello que el Ayuntamiento está realizado un estudio hidráulico específico del área de acuerdo con las normas actuales que para este tipo de estudios tiene la propia Agencia del Agua, modificando para ello la definición topográfica a nivel de los perfiles transversales de acuerdo con las obras ya realizadas, y todo ello, de cara a la definición más exacta de las manchas o líneas de inundación.

En base a la redefinición de la mancha de inundabilidad, la presente Modificación Puntual del Plan General plantea la definición de la parcela edificable a una cota tal que quede exenta del riesgo de inundación para el periodo de retorno de 500 años, incorporando en el estudio hidráulico y ambiental de detalle las medidas correctoras ambientalmente asumibles que no agraven la inundabilidad y el riesgo preexistente en el entorno.

En el caso presente, y en tanto no finalice el referido estudio hidráulico municipal, la presente propuesta recoge la cota (+) 7,82 m definida en los estudios de inundabilidad del Gobierno Vasco para evitar inundaciones con el período de retorno de 500 años.

Existen zonas del ámbito que quedan por debajo de esa cota, pero se corresponden con zonas que tan solo dispondrán de instalaciones deportivas en superficie, que no afectan desfavorablemente a la inundabilidad del entorno y no implican peligro para la seguridad de las personas.

Estas zonas inundables destinadas a uso deportivo y que carecen de edificación propiamente dicha pueden incluso funcionar como “depósito de retención” en caso de avenidas.

Por otra parte, el canal de Artía se ordena como sistema general de espacios libres con el objetivo de respetar y proteger dicho borde.

Participación ciudadana.-

No se han presentado sugerencias en este periodo.

DECRETO: Se dará cumplimiento a los interesados de cuanto ordena el acuerdo anterior.

Lo manda y firma el Señor Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de esta Ciudad de Irun, a 27 de noviembre de dos mil ocho, certifico

IDAZKARIA/EL SECRETARIO,

DILIGENCIA.- Con esta fecha se cumple lo ordenado, certifico